

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nikanor Iñurrieta Goikoetxea

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1920-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Kalebarrengo 12. zenbakian jaio zen. Etxean aitita-amamak, gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren, zazpi mutil eta arreba; bera bigarrena da. Gurasoak ere Soraluzeako bertakoak ziren, nahiz aitita-amamak bergararrak izan. 16 urte zituela hasi zen Gerra Zibila. Bera eta Iñaki anaia Gernikara joan ziren trenen senide batzuen etxera gerra hasi zenean. Aitak gerra denboran lau urte pasatu zituen espetxean. Hamaika espetxe ezagutu zituen, Fuerte San Cristobal Nafarroan, Isla de San Simón Pontevedran, Upomendi itsasontzia eta Leongo Astorgakoa haien artean. Lau urtetatik sei urte arte eskolaurrean ibili zen Modesta zaintzaile soraluzetarrarekin. Urtebetez eskola nazionaletan ikasi eta gero, maristen eskolara joan zen hamalau urte bete zituen arte. Victor Andrés muxikarra eta Antonio Agustin burgostarra izan zituen irakasle maristak. Euskal dantzaria izan zen mutikotan. Hamalau urterekin Zumarragara joan zen senide batengana, gozogile eta kandelagile aprendiz. Etxeko eskopeta-kanoi lantegian egin zuen lan gero. Ezkondu zenean, emaztearen aitaren torlojugintza lantegian hasi zen. Geroago bereganatu egin zuen tailerra eta bertan jardun zuen jubilatutik arte. Nikanor Juanita Leturiondo soraluzetarrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

SOR-027

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2003-02-11
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Oruesagasti, Ainitze

SOR-067

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-08
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

SOR-068

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-08
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Euskal Herriko ofentsiba

- **Erref:** SOR-027/002
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:01:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>1929. urtean Soraluzen jaiotakoa. Gerra Zibila hasi zeneko kontuak. Euskal Herriko ofentsiba.</p>

Transkripzioa

- Gogorra izan zuan hamengua, hamengo...
- Zeu ze zara? Plaentxian jaiotakua izengo zara, Plaentxiakua...
- Plaentxian jaixotakua. Ni jaixo nitzuan... Ipinitta daukak ala ze?
- Bai, bai, baiña zu horreaittik trankil ibili, e!
- Ni jaixo nintzuan milla bederatzirehun ta hogeixan, urtarrillan hamaikan jaixo nintzuan. Oin jaukaraz, ba, larogeta hiru ointxe eindda larogeta hiru urte. Ta hamen, gerria hasi zanian, ba, bajetuazen Naparruatikan ta mendixetatikan honutz. Ta oso gogor, gaiñera, etorri zittuan, e!
- Aurrian harrapatuko dana zertzen...?
- Harrapatzen ebena... Gaiñera, ordenak be gogorrak hartuta, e! Ordenak be bai...
- Iñungo errukirik barik ibiltzeko...?
- Bai. Orduan Mola zuan, jeneral Mola, ta hamen Euskal Herriko zera, ofensibia, hasi zana, hamentxe hasi zuan. Eibarko Arrate ta hamendikan hasi ta zerak, Euskal Herriko zera, ofensibia. Ta ordenia emon jua harek, beran soldaueri, Molak: "¡No quiero prisiomeros, eh!".
- Danak akabatzeko?
- Bai, horixe esatia nahi jua.
- Iñor ez harrapatzeko...
- Horixe esatia nahi jua harek. Holakotxe gogorra izan zua haura.

2. Etxetik Bizkaia aldera ihesi

- **Erref:** SOR-027/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Plazentzian, abertzale eta liberal gehienek guztia laga zuten eta Bizkaia aldera joan ziren. Berak 16 urte zituela, irailaren 20an, senide batzuen etxera ihes egin zuten.

Transkripzioa

- Gogorra izan zuan haura. Ta hamen be, Plazentzian tokau zuan, ba, abertzaliak giñanok, danok --orduak PNV-a zuan orduak, ta gero liberalak be bai, liberalak edo zerak--, danak, gehixenak, familixarik gehixenak, laga dana, ahal eben koltxoiren bat-edo hartu ta trenak-eta ipini jittuen ta juan giñuazen zerera, Bizkairutz.

- Zeuk zenbat urte zekazuzen...?

- Nik hamasei urte neukazen, hamasei urte. Bai, hogeta hamaseixan zuan. Milla bederatzirehun ta hogeta hamaseixan urten juan gerriak ta nik urtarrillian zertuta. Ta hori hogeta hamaseixan... Zela dok "setienbre"? Irailla...

- Bai.

- Iraillan hogeixan urten genduan --akordatzin nok--, domekia uste juat zala. Eta lñaki nere anaia ta ni; ba, gu nausixak giñuazen, harek hamazortzi urte ta nik hamasei. Ta urten genduan trenian, senide batzuen etxera juan giñuazen. Orduak pentsatzen genduan hamabost eguneko ipuiña izango zala. "Ba! Horrek segiduan etorriko dittuk abioiak", halakotxiak pentsatzen genduazen.

- Ta ordurako allegauta zeren?

- Ez, ba. Handik egun bira sartu zittuan.

3. Erreketeak Sorluzen

- **Erref:** SOR-027/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Familia kontuak. Aita, EAJ-ko alkateordea. Ama, haurdun. Irailaren 22an, erreketeak sartu ziren Plazentzian. Aita atxilotu eta lau urtean "Fuerte de San Cristobal" espetxean izan zuten.

Transkripzioa

- Horretarako, guk urten genduan, ta gure aittak be urtengo juan, zegaittik eze teniente-alkatia zuan PNV-kua, eta orduak garbittu eitten jittuen.

Bueno, eruan ta "di-da!" [...] kamiño baztarrera [...] ta fuera. Eta... Baiña tokau zuan ama haurdun jeuan, Benan gaztienakin haurdun jeuan orduak. Eta haura... Setienbrian sartu zittuan reketiak hona ta zerian, abenduan

zortzixan jaixo zuan. Aitta be, ba, ama hola laga zortzigarren umia...
 - ...eukitzeko...
 - Dana lagata juan [baekan], ba, geratu zuan, ta segiduan. Hona sartu hogeta bixan, reketiak sartu zittuan. Ta hogeta seixan, bazkaltzera zoiala-edo -- ezkutuan, e! Ezkutuan etxian egon bihar--, "da!" sartu zittuan aguazillak bi reketekin armauta sukaldereiñokan ta "Venga, tiene que venir con nosotros". "Un momento, por favor -- amak esan jotsen--, iba a comer ahora", "Enseguida volverá". Eruan juen ta lau urtian egon zuan kanpuan. Espetxian egon zuan. Baiña espetxerik gogorrenetan, e! Hau, "Fuerte de San Cristóbal"-ko lurpian euan zerian. Bera bronkitikua zuan berez. Lurrian lo eitten, ez asistentzia medika ta ezebe barikan egon zuan ixa hillian be. [Elisipaela] edo Ixipilla beltzakin be egon zuan.
 - Gaixotasuna?
 - Kristonak pasau jittuan gizajuak. Etorri zuan lau urtera. Gero, kanbixau zer asko. Lehenengo Donostiara. Ta, behintzat... Orduan esaten [...]: "¿Con éste qué...?", "Ya hay tiempo para eso, para liquidarle. Ya hay tiempo", behintzat, hamengo batek. Fabrikako direktoria zala-edo esaten juek. "Para eso ya hay tiempo". Berak be semia jaukan, ba, Bilbon preso. Eruan ein jotsen, ta deskuiduan haura garbittu izan balebe, ba... Harek "Ya hay tiempo, para eso ya hay tiempo" esan, ta, behintzat, bizirik urten juan. Nik ez jakixat, baiña orduan erreza be eitten juen gure amamak eta aittittak eta. Harek fedia be halakotxia, "y la fé mueve montañas" esaten dok, ezta? Ta haren errezuak edo zeozek lagundu jotsen, zegaittik eze bizirik geratzia zuan orduan... bueno!
 - Eta hori ze zan, zeure... ze senide esan dostazu?
 - Aitta! Nere aitta. Gure aitta. Ta gure anai gaztiena jeuan jaixotzeko. Zaharrenak giñuazen lñaki, zaharrena, ta ni gero.
 - Ta zortzi anai-arreba izan zarie zeuok?
 - Zortzi gaittuk. Sei segiduan mutillak, zazpigarrena Katariñe emakumia zuan, dok, eta --danok bizi gaittuk, e, oinndiokan!-- eta gero Benan, gaztiena. Osea, zortzi danera.

4. Gernikara ihesi

- **Erref:** SOR-027/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Plazentziatik ihesi. Trenez Gernikara. Gudarien Batailoiak. Egoera gero eta larriagoa. Baserrietatik lortzen zuten jatekoa.

Transkripzioa

- Bueno, ta holaxe urten genduan trenian. Juan giñuazen zerera, hona... Amorebietan, Zornotzan, geratu ta urten ein genduan guk, eta han pasau genduan gau guztia estaziñuan, estaziñoko barruan, ezta? Bazittuan, ba, hemen... beste familixa bat be hemengua bazuan. Etxabetarrak edo zittuan. Ta harek be umiekin, ume txiki-txikixekin. Ta haren koltxoian egon giñuazen etzanda lñaki ta ni, nere anaia ta ni gabian behintzat, haren koltxoi baten. Harek joiazan Mujikara edo, ta gu Gernikara senide batzuen... Aurretik berba eindda ta gure amaman-ta lehengusiña [batek]

eta zittuan, ta han. Hartu giñuezen oso ondo harek. Oso ondo. Semiak bagiña moduan, oso ondo egon giñuazen. Azkenerutz... Gero pasau zuan, ba, han batalloiak be bajeuazen zerenak gudarixenak, "Batallón Sasetá" ta... Gero, plazentziatar mordua --beste batalloi bat, hau... "Itxarkundia"--, "Itxarkundia"-n jeuazen plazentziatarrak. Baiña mordua, e! Hirurogetak-edo zittuan. Baiña gu Gernikan. Ta hantxe pasau genduan. Hilla juan ta hilla etorri, ta... Baiña... Lehelenguan primeran, baiña gero, geruao ta gutxiao jatekua be. Eskasidadia hasi zuan. Hasi zuan gutxitzen, gutxitzen ta gutxitzen. Ta eskerrak, basarri asko dao Gernika inguruan, ezta? Ta basarrixetatikan jiratzen genduan artiriña, arto-uruna, "uruna" esaten juek [erak], bizkeittarrak, arto-uruna. Ta morokilla ein ta morokilla jan ta esnia ta... Hauraxe izaten zuan "alimento principal" esaten dana, hauraxe izaten zuan. Ta holaxe gendela, beti esperantza onekin, e! "Ba, hurrengo kuartela..." esan... Bazittuan gure senidiak zianak komandante edo teniente-koronel be bat be bai bazuan, Lazkano, senidia guria eitten zana. Ta hareri, [ba, preguntau]: "Ze? Ze ikusi bihar dou?", ta harek beti esperantzia emoten. Ta bajakixen harek barruan, baueken harek berak, baiña jentia [animatziarren]. "Hurrengo kuartela Bergaran eukiko dou hurrengo kuartela".

- Esaten eban?

- "Oin hamen [daukagun] hurrengo kuartela. Laste, gaiñera!", ta "Enee!" [Danak...] gure tiak eta. Holaxe izan zuan. Oso ondo egon giñuazen gu han. Horixe, gosia gero, gosia etorri zuan. Gosia ta... Baiña esperantziakin laste akabauko zala gerria.

5. Gernikako bonbardaketa

- **Erref:** SOR-027/006
- **Iraupena:** 0:05:30. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gernikara ihesi. Gernikako bonbardaketa zuzen-zuzenean bizi izan zuen. Egun hartako bizipenak.

Transkripzioa

- Ta zenbat denpora pasau zenduan han?

- Oin horixe esango dostat, ba. Juan giñuazen, irailan hogeixan urten Gernikara. Bueno, hogeta batian alegau hara, zegaittik eze gaba pasau genduan estaziñuan. Ta gero estaziñuan, trena goizian, goizeko lehenengo trenian juan giñuazen Gernikara. Maleta... Egurrezko maleta batzuekin ta geure erropekin-ta juan ta han hartu giñuezen ondo. Bueno. Egon giñuazen han hurrengo hogeta hamazazpiko --hogeta hamaseixan zuan hori, juan giñana-- hogeta hamazazpiko zerian, apirillian uste juat izan zala bonbardeua, hogeta seixan edo, "veintiséis". Bai, hogeta seixan. Ta Gernikan zentro-zentruan nenguan ni lagunekin. Zerbezia-edo etorri zuan orduan. Zerbezia etorri zala ta "joño!" kaña bana hartu ta hantxe jarri mahaixan ta... "Café Norte" edo zuan, oso leku politta. Kanpuan mahaixan jarritta, ta... abioia, inspekziñokua edo. Ta joten juen kanpaiak-eta jotén jittuen ta... ohittu ein giñuazen! Ez juen botatzen bonbarikan be, ta gu ezta mobidu be ez. Baiña, horraittiokan, hurrengo beste bat etorri zuan ta "daunba!". Aiba dios! Lehelengo bonbia! Orduaintxe hasi giñuazen

mobitzen. Gero, honek, zerak, junkerrak, [juan zittuan] abioi garauak kargau-kargau indda bonbaz. Etortzen zittuan "por oleadas" esaten dana. Mordua, e! "Caza"-k aurretikan ta hurrengo atzetikan "caza"-k berriro. Harek botatzen, hasi zittuan bonbak botatzen, ta gu pixkaka-pixkaka... Hemen plaza zaharrian egotia moduan genguazen, ezta? edo Gilaneko labadero gain inguruan izatia moduan. Ta hasi giñuazen pixkaka-pixkaka txaratik igotzia moduan. Han Lumo edo herri zera, txiki bat. Ta haintxe, lau-gaiñian. Ta parian zianian ta bonbaren bat "ffiii" somatzen genduanian geratu ta expulsatzen ebanian urten berriro ta lau-gaiñian, [aber], igo genduan San Marzialera igotzia moduan jeuan. Ta han, arbola baten azpitan, lagun bat zuan gernikarra nerekin --oso lagun maittia najuan, gaiñera, ta... Hil zuan haura be aspaldi--, etzanda jarri tripaz behera ta ikusi genduan bonbardeo guztia zeretikan herrixa ikusten dan moduan, e! San Marzialdikan. Nik ikusi najuan bonbardeua ixa lehelengo bonbetatikan, e! Ta horretarako, punto baten geldittu giñuazen mendira baiño lehenao. Ez [jakit], ba, nik, zerian geratzia moduan, Lersundiñeko parian-edo geratzia moduan San Marzialera juan barik. Halakotxe [...], ta hantxe [denporatxo bat], ta haintxe. Ta jentia etorri ihesi, ta etorri ta etorri ta etorri ta neuk esan najotsan lagunari: "Hi, hamendikan guaziak, bestela, hamen ikusiko juek eta bonbaren bat botatzen badabe hamen, hamen triskantzia ingo juek eta". Ta hurrengo zerak izaten zianian, juanaldixak-edo, aprobetxatzen genduan ta "ra!", juan giñuazen lau-gaiñian, lehen esan doun moduan, goraiñokan. Izan zuan bonbardeo bat, hiru ordu t´erdi edo lau orduan edo jo-ta bota ta bota ta bota bonbak. Txikittu juen dana txikittu juen! Ez zuan eze geratu han. Eskiñetako zerak, holako etxeren bat. Bakar batzuk edo geratuko zittuan, baiña hiru edo lau geratuko zittuan. Ta gero haren ostian, haren atzetik, bonbak botatzen zera. Dana aprobia zuan, Alemanen zer bat izan zuan haura, "un entrenamiento" moduan. Gero honek "napalm" edo horrek "zzzuuumm!" botatzen jittuen bonbak, "zzum, zzum, zzum, zzum", ta urdin-urdiña urtetzen juan zerak, keiak, eta gero "ffuu!" batera-batera sua. Gero, gaiñera, hori ein juen. Hori bakarrik ez! Botatzen jittuen bonbak, ta jentia ezkutauta ta refugixo modukuetan ta etxe-azpixetan ta egoten zianak eta juanaldixa eitten ebenian, bota bonbak eta zerak, keiak urtetzen juan --gu begira--, ta gero, kentzen zanian zera, ikusten genduan jentia ihesi, aintxitxika, ume ta andra ta danak. Eta "caza"-k, honek, abioi txikixak? Haura zuan, haura zuan entrenamentua ta haura zuan juergia harendako! "Ta-ta-ta-ta-ta" ikusi. Garbi-garbi ikusten genduazen botatzen. Zera, e? Ez juen begiratzen andrak ala umiak ala zerak zian. Ta gehixena halakotxia zuan, andrakumia ta ume ta zerak. Izan zuan haura... Nik hamentxe daukat haura dana, e! Ta bizi guztian euki juat! Bonbardeo bildurgarri haura! Haura... Personak zela euki leikien hori, hori instinto zerori. Ta gero, hamen Nurenberg edo hor euki ebenian gerra europea, gerra mundialeko juiziuian esan juan hango jefia izan zanak orduan... Zela zuan haura? Goebels edo... Bai Goebels. Edo Goering...? Bueno, kuestiñua dok, haren kargua eukanak, abiazitñuana-ta, esan juan: "Aquello fue un entrenamiento de la Gestapo" edo [...]. Ta horixe. Ta klaro, ordura arte ederki ibili nitzuan ni, baiña gero haura bonbardeua [...] zanian, hain... Etxia baek eta ezebe bae geratu giñuazen, [eze] gure tianak ta danak, danak erre zittuan.

6. Bilboko ofentsiba

- **Erref:** SOR-027/007
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Gudari egin zen bonbardaketaren ostean. Tiro bakarreko fusila. Bilboko ofentsiba. Jendea ihesi.

Transkripzioa

- Ta klaro, ordura arte ederki ibili nitzuan ni, baiña gero haura bonbardeua [...] zanian, hain... Etxia baek eta ezebe bae geratu giñuazen, [eze] gure tianak eta danak, danak erre zittuan. Ta harek be Foruan-edo bajauken zer bat, zeren bat, etxeren bat, eta haura, hara edo. Baiña guk, Iñakik eta nik, ba, urten genduan, ta orduaintxe juan nitzuan ni gudari. Baiña ordurako baneukazen hamazazpi urte kunpliduta. Hamazazpi urte besterik... Gaur mutikotxua pentsatzen jatak neri hamazazpi urtekua, baiña neuk ez najuan pentsatzen ni mutikotxua nintzanikan! Joe! Ta hantxe, neu baiño fusil... neure alturia baiño fusil luziauakin. Gerra europeako zerak ziala esaten juen, frantsesak-edo, tiro batekua.

- Bat bota ta berriro kargau [arte]?

- Haura zuan metralletia haura! Tiro bateko fusilla. Igual dok! Bueno, behintzat halaxe, ba, soldaduskan. Ta gero, Bilbora sartu zianian-ta, urten genduan handikan be. Akordatzen nok, oiñez juan nitzuan tio batekin. Urten --Portugaleten lo ein najuan orduan nik, ta-- urten goizian... Ba, bajetuazen zerak, moruak eta tropak eta baetozela-ta urten genduan. Illuntzirutz urten genduan. Bai. Ein genduan gau guztia zerian, kamiñuan. Kamiñua betian jentia, burdixekin basarrikuak eta ganauekin, ta umiak, eta hango kurriskia ta hango zera. Gabaz, illunetan, ezta? "Argirik ez piztu, argirik ez piztu" esaten ibiltzen zittuan, baiña noixian behin bateronbatek "tak!" edo linternia edo [...] juen, ta "Argi hori!" ta ez dakit zer ta... Kuestiñua, orduaintxe be bonbardeau eitten giñuezen, ta ez juen azertatzen kamiñua, baiña inguruan ta... Hasten dok, txistua moduan izaten dok, "fssii" bonbian zera, ezta? Kamiño baztarrian etzin kunetan, ta pasau artian. Ta bota "bloun, bloun, boun, boun" bota illaria bonbak eta joño! ya juan dok hau. Illunetan, e! Ta halaxe allegau giñuazen Castro Urdialeseraiño [...]. Oiñez, oiñez ein genduan.

- Ta orduan [...] gudarixen zerakin? Batalloian edo, hola, bestela?

- Artian ez. Ni ez artian. Iñaki bai. Iñaki orduan jeuan batallon zerian... "Batallón Sasetan" jeuan haura.

7. Frontea; batailoiak

- **Erref:** SOR-027/008
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

Laredo aldera ihesi. Batailoiak. Anaia, Iñaki, gudari ordurako. Egoera oso gogorak bizi arren, pertsona egin egiten da; beldurrik ez. Frontean zeudela, jatekoa nola eramaten zuten.

Transkripzioa

- Illunetan, e! Ta halaxe allegau giñuazen Castro Urdialeseraíño [...]. Oiñez, oiñez ein genduan.
- Ta orduan [...] gudarixen zerakin? Batalloian edo, hola, bestela?
- Artian ez. Ni ez artian. Iñaki bai. Iñaki orduan jeuan batallon zerian... "Batallón Sasetan" jeuan haura. Baiña ni, gero, allegau nitzanian Laredo- edo, ba, nik jan be ein bihar najuan ta zera, ta orduaintxe honek batalloiak etorri zittuan. Batzuk hamar lagun bakarrik geratutakuak be bai batalloi osotikan. Prisionero einddakuak, Bilbon geldittutakuak, [...] garatutakuak eta abar. Ta gero han izan zuan batalloietako Sasetakuak eta beste batzuekin formau zuan "Batallón San Andrés". Ta...
- Ta, orduan, zu haraiño zela zindoiazzen? Bakarrik zindoiazzen edo...?
- Tio batekin.
- Tio batekin...
- Tio batekin bakarrikan. Iges. Igesi. Ta igual Frantziara iges eingo genduala-ta pentsatzen ta holako gauzak; "Barkurik billatzen b(ad)ou" ta holakotxiak pentsatzen. Bueno. [...], gero batalloira; ezin izan genduan hori ein, ta batalloira. Ta batalloian frentian be egon nitzuan. "Pico Betayo" edo esaten jakok, han zerian, Trucíos inguruan daok. Azkenengo zerak, Euskal Herrixan pusketak, hantxe. Hantxe egon giñuazen, ta zer bat egon zuan, atake bat be egon zuan. Ta haren erretiradia zaintzen gu, ta gero, beherutz gindozazela, deskubiarta baten pasau bihar genduazen ta "pak-pak" banaka-banaka pasatzen. Hartuta jeuken haura ametralladorakin goittikan, ta jausi zittuan, bat edo bi jausi zittuan. [...] holaxe "dzi-dzi!" somatzen zituan balak eta ez dakik? Banaka. "Ala, bengá, ointxe!", "ras!". Zona bat hartuta zerekin, ta holako estuasuntxo batzuk pasau genduzen.
- Ta horrek momentuetan ze... bildurra galanta?
- Bildurra ez jakixat nik. Bildurra...
- Hain bizkorak pasauko zian gauzak...!
- Ni akordatzen nok holaxe gendela, orduan denporan, geratu-unia edo ein genduan. Bueno, gure... Pixkat... goixan jeuazen posiziñuak, ezta? Baiña gu pixkat beheratxuau genguazen. Han genguazen geure txabolak-eta eindda; zela edo hala eindda, abarrekin eta abar eindda. Holaxe genguazen, ta nere aurrian jeuan azkoittiar bat. Ta berbetan, "Holaxe pasau jata neri balia, fffiii!", ta bizkarrian haura. Holaxe jo juan, e! Holaxen eukan. Ta nere edade ingurukua zuan haura be, hamasei urte edo hamazazpi edo. Mutil bat, mutil bat ederraua! Baeukan... azkoittiarra-edo izan bihar juan. [...] holaxe. Ta hartu ta... gauza normala [balitz] moduan. Estuasunik eta holako bildurrik eta holan ikararrikan-eta ez genduan eukitzen.
- Klaro, egunero ikusten zan gauzia ta...
- Eindda, eindda genguazen danera.
- Ta, orduan, orduaintxe hil zan haura?
- Bai, haura hil in zuan. Erretirau juen segiduan. Beherutz eruan juen ta... Mendi haundixa zuan, ba. Hamen Karakatera bi aldiz juatia moduan. Osea, Karakate ta beste hainbeste egotia moduan. Ordu bi t´erdi, hiru ordu inguruko bidia jeuan. Egun baten... gerran pasatzen dianak, ezta? Zain egoten giñuazen rantxuana. Ta muluekin edo mulo batekin ekartzen juen. Zela esaten jakuen horri, muluekin ibiltzen zianeri? "Acemileros" edo esaten jakuen. "Hamen datok. Badatok hamen azemilerua, badatok, badatok janakin" ta hola, han zain-zain gero. Arroza edo zeoze izaten zuan, ta jateko desiatzen. Egun baten, ez zala etortzen ta ez zala etortzen, ta mulua jausi jakuan ta janok eta danok... Bai, ba, bidia be zera, txarra, ta mulua jausi ta, bueno, orduan egunian ez genduan jan be ein.

8. Batailoiak, gudariak

- **Erref:** SOR-027/009
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

San Andres batailoia. Kuartela Laredon izan zuten; bertan egon ziren formatzen. II. Mundu Gerran Parisen sartu ziren lehenak gudariak izan ziren, komandante euskaldunaren gidaritzapean (Ordoki). Haren inguruko pasadizoak.

Transkripzioa

- Ta nik gero... "Batallón San Andrés" zuan guria, ezta? "Batallón San Andrés". Ta kuartela euki genduan --holan, mendira juan aurretik--, formatzen-ta egon giñan lekuan. Lehenengo Laredon formau giñuazen. Gero, handikan Monteano edo esaten jakuan, Santoñara bittartian euan zer bat, Kaputxino edo holakuen zera zuan.

- Konbentu moduko bat?

- Konbentu modukua. Baiña..."Batallón de Urruti" edo egon zuan anarkistena edo holakua; zatarra. Han be ein jittuen honek zerak be, zatarkerixak ein jittuen batzuk, e! Joe... Haura eliziaura jeuan kuartel eindda: [...], ohe zikiñak eta... Gu juan giñanian, lehenengo gauzia ein genduana... Kapillaua be [bagenguan], e! Gure kapillaua, gazte bat, arabarra. Ta nahi ebanak konfesau edo komulgau edo ein zera, atake baten aurretikan-ta, nahi ebanak, fedetsua bazan-ta... Ta gu fededunak giñuazen ta harekin... Bueno. Kuestiñua dok... Joe, eske nora juan jatak zera, harixa? - Ez da harritzekua... Nun esan dostazu? Konbentuan-ta zera komentatzen zebizen.

- Bai, bai. Han kuartelori euki genduan. Komandantia zuan famosua, e! Komandantia. Esango dostat gero ze ein eban harek. Prisionero jausi zanian... Bueno, komandantia Ordoki, famosua. Hori izan zuan, Ordoki hori izan zuan gero Parisera, Paris liberau zanian gerra mundialian, liberau zanian, lehenengo juan zan "el carro de conbate", lehenengua sartu zana, horixe izan zuan. Euskaldunekin. Gudarixekin formauta jeukan han be, Parisen be, grupua. Ta berak izan zittuan lehenengo sartu zianak Parisen. Hori,

gure komandante hori, Ordoki hori. Ta nik... Ordokikin akordatzen nok... Nik asistente moduan, gaztia zela nitzan, teniente baten asistenete moduan eitten najuan. Ta kapillaua ta hori, tenientia, ta Ordoki ta ni musian. Horrekin, Ordoki famosorrekin.

- Deskantsua zeuanian?

- Bai. Ta behin billau najuan --oin dala urte batzuk-- zahartuta ta nausittuta, eta ezautu najuan Ordoki. Ta "Gogoratzen zara nerekin?" ta ez, ba, [...] haura...

- Zenbat urte...

- "Ba, ni naiz Pico [Betaion] egon nitzan ni zurekin azkenengo prisionero hartu aurretikan, ein giñan aurretikan, zerian", ta "¡Ya recuerdo!".

- Akordatzen zan?

- Erderaz eitten juan, [...] ikasi juan euskeraz be gero, e! Baiña... "Ya me acuerdo de un cahval. ¡Eras tú! Ya me acuerdo yo".

- Ta bera nungua zan, ba?

- Bera irundarra edo. Irundarra. Baiña gero Franzian ezkondu zuan han ta... Hil zuan, e! Baiña balientia...! Badakik ze ein eban harek? Prisionero hartu juen ta haura fusilau eingo juen seguru-seguru-seguru naok, mordua garbittu jittuen ta. Ta haura zuan "un jefazo", baiña... holakotxiak barrabillak be, e! Dio! Eta badakik ze ein eban harek? Nik ez jakixat zela, baiña konsegidu juan erropia...
- Soldauana edo?
- Falangista. Falangista jantzi galoi ta guzti ta ate prinzipaletik urten juan. Ta atekuak be "dra!" saludua ta... Franziera pasau. Gaiñera, lurrez, e! Ez itsasoz, lurrez! Pentsaik zelako bragaua zan!
- Bai, bai, bai.
- Haura zuan gizona haura! Dio! Ordoki. Ez jatak ahaztuko sekula.

9. Santoñan atxilotua

- **Erref:** SOR-027/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Santoñan harrapatu zituzten. Frontera joateko erabakia. Italiako soldaduak. Italiarrak joan zirenean, armada joan zitzaien zaintzera. Orduko bizipenak.</p>

Transkripzioa

- Ta horixe.
- Ta nun zan? Han zeuek prisionero hartu zinduezen?
- Bai, ba, gero zerian, Santoñan. Bederatzi milla edo. [...] ez jeuan handikan ihes eitterik iñora itsasoz ez bazan ta... Batzuk barkuetan ta zerian ta... Zerak jeu... han be bajeuazen Francon zereko... nabalak. Zela esango juat... kruzuruak eta gauzak eta. Ta segiduan harrapatzen zittuen ta barrura ta... Gaitza zuan. Batzuk ihes ein juen, e! Nere tio, juan nintzana, haura pasau zuan, Frantziara pasau zuan. Baiña neuk esan najotsan: "Ni, ni banoia, ni frontera noia". Ta holaxe geratu nitzuan.
- Ta zeuk frentera zela hartu zenduan erabakixa? Ez zendualako beste urtenbiderik?
- Bai, horixe izan zuan gehixen be. "Ni nora juan bihar nok ni oin?". Ta gero baitta... baitta... Beste... beste... Bestela ze ein bihar najuan, ba? Gaztia izanda... Hamazazpi urte neukazen, baiña nik ze ein bihar najuan? Eskian ezin neikian hasi. Ba, frentera. Hartu fusilla ta hantxe. [...]. Ein genduan, behintzat. Tiro batzuk bota be ein genduazen, ez jakixat iñor azertauko neban, baiña. Holaxe, ba. Horixe dok nere...
- Ta gero han prisionero nun egon ziñien zeuek?
- Gero han hartu giñuezen jefiak eta honek baeukezen beren listak eta gauzak eta, ta barrura, zerera, "al Penal de el Dueso". Garbittu jittuen mordo bat han. Ta beste bat...
- Hori nun zeuan?
- Gu zerera, gu Laredora lehenengo. Laredon hamabost bat egun edo eingo genduazen itxi... konejuak bagiña moduan alanbradurak ipini jittuen ta plaian. Haintxe. Lo be haintxe eitten genduan. Eskerrak uda partia zuan. Ta haintxe. Gero italianuak, italinuekin ondo, ondo zertu zittuan italianuak. Italianuak... eskerrak italianuak izan zianari. Berak ekarri joskuezen bi

lagunendako...

- Kanpiñen modukuak?

- Kanp... Telazko zer batzuk. Behintzat zerian, aterpian, ezta? Iñakik eta nik, nere anaiak eta nik, han holaxe eitten genduan zer baten. Ta mordua holaxe ipinitta plaian. Plaia haundixa dok, e, Laredokua. Ez jakixat ikusitta daukaan.

- Ez.

- Izugarri luzia.

- Ta haura bete-bete einda zeuan?

- Bai, ba, hantxe. Ta hantxe. Ta gero, klaro, han be... jan bakarrik ez dok eitten, norberan premiñak be egoten dittuk eta haintxe, baztarren batera-edo fan ta... Bazittuan han txalet batzuk-eta ta jardin modukuak ta haraxe. Ta hangiak be des... zertuta; zatarra gauzia han bizi zanandako! Baiña... halaxe. Egon giñuazen hamabost bat egunian ta gero izan zuan txarrena kanbixua. Italianuekin oso ondo, e! Italianuekin... Tratatzen giñuezen persona moduan. Baiña etorri zuan gero Ejerzitua ta italianuak juan zittuan. Haura zuan aldia! Haura zuan aldia haura! Katiak eta urrezko zerak eta anilluak eta...

- A! Danak harrapau?

- Kendu ta, ta... Haura sakeua haura! Haura zuan... haura zuan lotsagarrixa! Gero euki giñuezen... Gero formau ta eruan giñuezen grupo haundi bat... Bueno, gero jente asko juan zuan —hainbeste giñuazen, bederatzi millatikan, ba, erdixak edo ez jakixat zenbat— Castro Urdialesera be bai batzuk. Jaio, nere laguna, Jaio haura Castrora juan zuan haura. Ta gu... Beran anaiak be bai batzuk hara ta geratu be bai ta... Holaxe.

10. Santoñan atxilotu zituzten

- **Erref:** SOR-027/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Santoñan atxilotutakoak asko ziren eta banatu egin zituzten. Batzuk Castro-Urdialesera eraman zituzten; beste batzuk bertan geratu ziren. Han geratutakoak, Miranda de Ebrora eraman zituzten. Lan-banaketa. Barrakoiak. Cara al Sol.</p>

Transkripzioa

- Holaxe, geratu giñuazen gu ta kanpo-fubolera lehenengo. Kanpo-fubolian dana holaxe, zutik egon... etzin be... edo... jarri be ezindako moduan.

- Hainbeste jentekin?

- Hainbeste jente... Kanpo-fubola be bete-bete-bete einda. Hasi zuan eurixa, zaparradia, ta, akordatzen nok, busti giñuazen, bueno, dana-dana-dana. Hamendik ura sartzen ta hamendik urtetzen, mela-mela-mela einda. Gaztiak izan ta...

- Bai, aurrera.

- Gero, ba, urten genduan hurrengo egunian edo... bai, hurrengo egunian iluntzirutz. Danok aldiarik siku zittuan erropok. Ze ete dok gaztia izatia? Gaur izaten bada, bueno...! Pulmonixiak. Ta etorri... organizau juen trena ta eruan giñuezen Mirandara, Miranda de Ebro. Eta lehenengo Mirandara allegau giñanian "a la plaza de toros".

- Eta zela eruan zinduezen, trenian?
 - Trenian. Baiña ganauen trenian, e? Zutik. Honek ganauen zeretan? Ez jarlekurikan ta ezebe barikan. “¡Venga, adentro!”
 - Barrura...
 - Pelikuletan ikusten dittuk oin judixuen zerak? Igual-igual-igual.
 - Igual-iguala?
 - Igual-igualekuak. Zenbat bidar akordatzen naizen ni. Sartu ta zerera, kanpo-fubol... lehelengo hor... plaza de toros zerian, han lo ein genduan. Ez dakik? Jarlekuak-edo ta hantxe etzan ta “a la intemperie” hantxe lo ein genduan. Intzakin busti-busti indda hurrengo goizian esnatu ta bueno. Gero handikan... fabrika bat, esplosiñua egonda euala ta tetxu bareko fabrika bat, [...] “fábrica de no sé cuántos, de [...]” edo ez dakit zer zan. Haraxe eruan giñuezen. Ta gero hantxe bertan hasi giñuazen txabolak-eta itten. Arotzak... “A ver, carpinteros”, ta, ba, danerakuak egoten zittuan, ba, ta gu, ba, laguntzen. Ta tablak eruan ta... behintzat, barrakoiak-eta in eta... 'Cara al Sol' hola kantau ereitten oskuen ta ikasi, ikasi in bihar. Atzetikan isil-isilik etorri ta isilik harrapatzen baniñuen ostikadia igual ta... Kulatiakin be jo najiñuen ni behin zeraaittikan: berakua-edo formau jatan ta urten najuan nunbaitten libratzera edo zerian ta soldau guardixan euan batek — ordenak hartuta [eren]— “daba!” jo kulatiakin ta jo-ta luze! En fin...

11. Batallón de Trabajadores

- **Erref:** SOR-027/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Atxilotutakoen izenak hartu eta informeak eskatzen zituzten bakoitzaren jaioterrira. Bera etxera bidali zuten; anaia "Batallón de Trabajadores"era.

Transkripzioa

- Gero, Mirandatikan edadez... edadia. Hartu [oskuezen] filiaziñua ta gero herrixetara be eskatu zerak, informiak eskatu ta abar ta hain txarrak ez zittuen emongo nereaittikan.
 - A! Ze eitten zeбен, izena batu ta nobere herrira eskatu...
 - Izenak hartu ta gero nunguak, [nunguak] giñan ta hola.
 - ...zein zan ta hori?
 - Gero hamendik bialtzen juen “elemento peligroso” ta holakuak zittuan. “Nacionalista destacado” ta “no sé qué” ta... Nereaittik ez, ba, ni gaztia nitzuan ta itxuria ez juen halako zerik emon, halako txarrikan. Ta bialdu najiñuen ni etxera. Urten ein najuan hamendikan, esan dodan moduan, iraillan hogeixan ta hurrengo urteko iraillan hogeta seixan etorri nintzuan, allegau nintzuan etxera. Ta nere anaia egun batzuk, egun bi, lehenao edo, Iñakik hamazortzi urte zela eukazen haura a “batallón de trabajadores”. Hara bialtzen jittuen. Baiña edadia batzuk pasautakua eukenak be etxera. Ez dakit, ba, bajeuazen berrogeta hamarrekuak-eta be. Guretako aittitta pentsatzen genduan hori...
 - Ta han zeuek preso egon [ziñenian] jentia hil be eitten zeбен orduan?
 - Ez. Ez, ez, ez. Oin, tratua gogorra bai, e? Tratua gogorra bai, e? Joe, jo-ta atzetikan juan ta [jo-ta igual...].
 - Edozer. Bai, amorrakin, behintzat.

- Bai, bai, bai, amorrúa. Euskeraz entzutiarren be bai, jo-ta dale! Euskeraz entzutia ta zera zuan. Gogorra, gogorra. Ointxe be holakotxe zera daok, e? Girua, girua holakotxia ointxe be. Oin be ahal balebe eingo leukie, igual-iguala eingo leukie.

12. Gerrara joateko kintoak eskatu zituzten

- **Erref:** SOR-027/014
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Lanean hasi eta 10 hilabetera, kinto berriak eskatu zituzten gerrara joateko (1920ean jaiotakoak). Lizarratik Asturiasera. Ez zuten frontera eraman. Sei urtean egon zen etxetik kanpo. Francoren tropek herri bat hartzen zutenean, batzuek ospatu egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Gero, ba, hasi nintzuan lanian ta segiduan, hamar hillabetera edo... Politto irabazten genduan, gaiñera, baiña ordu asko, e? Seiretatik seiretara lana, e? Goizeko seiretatik arratsaldeko seiretara errelebo bat. Jaiot ni [giñuan], makiña baten eitten genduan. Seiretatik seiretara nik eta gero seiretan sartu, arratsaldeko seiretan, ta goizeko seirak arte. Hori hamar hillabetian edo. Ta irabazi be dexente eitten zuan. Baiña ohittuta genguazen. Bueno, armozu fuertia edo zeoze eruaten genduan jateko ta hola. Ta gero, ba, gerria jeuan artian, hogeta hamazortzixan gerria segitzen juan ta "la quinta del cuarenta y uno" eskatu juen, hamazortzi urte neukazen ordurako. "La quinta del biberón esaten otsen". Ta ni ordurako, pentseik, frentian-ta ibilitta nenguan. Orduan asko negarrez ta, akordatzen nok ni Donostian. Bai, ba, umiak, umiak, hamazortzi urtekua umia dok, esateko moduan. Ta ni pixkat kalluak eindda ordurako. Ta holaxen juan giñuazen. Ta Estellara. Ta Estellatikan Asturiasera. Ta Asturiastikan [hantxe] gerra denporan, ezta? Frentera ez giñuezen eruan, behintzat. Neuk nere ofiziuia emon najuan tornero mekaniko ta Trubiara eruan ta han ipini soldau moduan, baiña lanian egon nitzuan ta, hi, pagau eitten joskuen, gaiñera, ta holaxe pasau zuan. Haura ederra izan zuan. Bueno, ederra edo...

- Ta hori zela izen zan? Zeuek hemen lanian zenbizela diar ein zotsuen...?

- Bai, bai, bai, gerrarako. Ta bertan herrikuak...

- Ta hori zela izaten zan? Igual ze eitten zebeñ bandua etara edo holako zeozer?

- Bai, bai, bai, etortzen zuan ordenia aiuntamentutikan [...] bandua [...] juan: "los nacidos en Soraluze ta tal y cual desde el año tal que nacieron tal...". Bueno, horixe zuan: "los nacidos en el año veinte del primer trimestre" juan giñuazen. Lehelenguak izan [bihar...], lehelengo zerak.

- Ta igual betenbatek orduan be jentia hanka-ta eingo zeban edo...?

- E...

- Gehixenak barrura?

- Orduan pribilejiuak jeuazen, fabrikan ta. Sasoi ederreko personak ta zelebrazten ebenak poblaziño bat hartu ebela igual. E? Zerak, Francon tropak eta. Zelebrazten txanpanakin ta, ala...! Demasak [eitten]. Baiña etxian, frentera juan barik. Frentera gu, gu bialdu. Ta, bueno, kuestiñua dok gero sei, sei urte. Horrek danok pasau, hasi lanian, bialdu zerera... Ta gero,

bittartian, treinta y nuebian izan zuan, hogeta hemeretzixan izan zuan Gerra Mundiala, sortu zuan, Alemania ta zera. Gero Italia be bajeuan, Mussolini jeuan han ta bestia. Hitler ta zera ta... Kuestiñua dok, tropak eukitzia komeni zala edo ez jakixak zer hantxe gosiak eta kalamidade bat eindda beste sei urte ein genduazen soldau. Danera...

- Ta nun ibili ziñan orduan?

- E?

- Nun ibili urte horretan?

- Ba, soldau, lehenengo zerian, Estellan; gero Asturiasen; ta gero zerian, ofizinan hasi nintzuan, ipini najiñuen zerian, Estellan, atzera gerria akabauta bueltau giñanian. Ta neuk hartu najuan ofizio bat. Eskatzen juen “doce números”. Ez [dok esaten] “doce personas”, ez juek ... numerua izaten dok soldaua, e, ejerzitan orduan, numerua. Muluak be izena eukiko juan, baiña personiak numerua. “Doce números para sanidad militar”, ta “Mekauen! —esan najotsan— juango nintzakek, ba, ni pozik!”. Gaiñera, cuarenta y unoko kintua. Bajeuazen zaharrauk, baiña guk, guk esaten genduan: “Ene! Gu pixkaterako bagauaz!”. Ta holaxen kapitanaana juan nitzuan ta: “Mi capitán, me gustaría apuntarme en este... en este lote, ¿podría ir yo a Burgos, a Burgos, a sanidad militar?”, “Pero, ¿Cómo va a ir usted? ¿Cómo va a dejar el puesto ese? Que... ¡Ni hablar, hombre!”. Lehelengo holako zera esan jostan ta, bueno, bueltau nitzuan ta... Horraittioik pixkat pentsatzen edo jarri zuan ta “De qué quinta eres tú?” ta “Yo del cuarenta y uno”, “Bueno, si encunetras un sustituto...”. Joe, hori bai bizkor! Zeaittik bilbotar batek eitten juan nere onduan lo ta mutil bat argixaua ta zeraua zuan! Hari be emon najotsan poz galanta —ni baiño zahartxuaua zuan, baiña— ta haura presentau najuan ta gero ni be apuntau nitzuan [horretan] ta holaxen juan nitzuan Burgosera. Ta Burgosen, ba... treinta y nuebian, mil novecinetos treinta y nueve. Bai. Burgosera. Akordatzen nok egun be: hogeta bederatzixan zuan juniuan, hogeta bederatzixan zuan. Hogeta bederatzixan... Ta... Berrogeta... Hogeta bederatzixan, hogeta bederatzixan. Baiña lizenziau mil... milla bederatzirehun ta berrogeta lauan lizenziau. Hamazortzixan juan. Oseake, sei urte...

13. Gerra garaian preso

- **Erref:** SOR-027/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gazte sasoi guztia gerran edo preso pasa zuten. Preso egon zirenean, zein egoeratan bizi izan ziren. Garbitasun eza.

Transkripzioa

- Berrogeta lauan lizenziau. Hamazortzixan juan. Oseake, sei urte [han galdu zian]... gazte-denpora guztia. Sasoirik onena pasau genduan holaxe, “entre guerra y prisionero”. Hor... zorriz beteta, gero, hor zerian... Zorrixa ta... Ohittu ein giñuazen. Lurrian be ikusi eitten zittuan hor. Bai, ba, hainbeste lagun! Gu eruan giñuezenian Mirandara, Mirandara, kanpo konzentraziño horretara ez jeuan ez argirik, ez urik, ezebez. Komunak-eta be ein bihar izan zittuan. Erreka bat pasatzen zuan kanpo konzentraziño...

haundixa zuan kanpua —hogeta bedratzi milla lagun inguru giñuazen ta— han erreka bat eta Ciscar-a edo ipini jotsen izena. Hola in zerekin eskillara [...] ta...

- Handik behera itteko?

- Zera... norberan...

- Bai...

- ... nezesidadiak eitteko zerera, uretara juaten zittuan. Ta beste batzuk han behian harutzao pixkat ibiltzen giñuazen, ba, erropak garbitzen be bai. Ta zeoze, zeoze. Ez dakik? Baiña garbitzen eban, baiña zorrixa ta zikiña jeuan... bueno, bueno! Kalamidadia. Kalamidade bat. Horixe izan zuan gure gazte-denporako zera.

- Sei urte, e?

- Sei urte soldau eta gero Bizkeikua aparte. Bizkeixan eindakuak eta horrek aparte. Ba, hogeta hamaseixan urten ta berrogeta lauan... Danera zortzi urte.

14. Gerrako momenturik gogorrenak

- **Erref:** SOR-027/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerrako pasarterik gogorrenak: Gernikako bonbardaketa; anaiaren berririk gabe egotea...</p>

Transkripzioa

- Karo, nere gudarostia ez zuan izan luzia ta zera, baiña probau najuan behintzat. Probau najuan ta...

- Ez zare gutxi probauta.

- Heriotzia be ikusi najuan hurrian... ta trajikuena Gernikako bonbardeo haura. Tokau in jatan dan-dan-dana ikustia. Negar batian, nere laguna ta bixok, bixok negar batian. Haura zuan... Gero urten ta...

- Haura bai izango zan gogorra, ezta?

- Haura zuan ona! Gero billau ezinda alkar! Iñaki banekixan, ez nekixan bizi zanik be! Dana sutan jeuan! A! ta gero gaiñera, lehen esan juat ba esan notsala e: "Hemen jente larregi daok eta hobe juau pixkat gorutz eittia". Beheruzkuan bertatikan pasau giñuazen; hain zuzen, bonba bat bertan jausitta jeuan. Eta han jeuan triskantzia! Hanka barek be gizon bat ikusi najuan. Honek zertuta... ta bizirik artian. Uluaka ta... hango odola ta hango txipristiña ta zera.... ikusgarrixak.

- Bai, pentsatzen dot.

- Kuadruak. Geratzen jataz... zerian.

- Ta orduan han falixakuak-eta be hil jatzuezen?

- Gure familixakuak, senidiak bai hil zittuan. Hil zittuan. Ta eridu be bai. Eridu be bai. Bat debarrak zittuan, ta hantxe, Gernikako bonbardeuan... Ta morduak giñuazen, ba, e... baiña nahiko suerte euki genduan.

15. Plazentziarrak gerra zibilean

- **Erref:** SOR-027/018

- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Soraluzeko ezagun asko hil ziren gerran. Batailoi desberdinetan egon ziren plazentziarrak: Amuategin, Itxarkundian...

Transkripzioa

- Ta hamen Plaentxian e... zela izen zan da entzun da ta aukiko zela gitxi gorabehera...

- Zela?

- Plaentxian ze gertau... Plaentxian e... hildako asko ta egon zian orduan [...].

- Orduan mordua hil zittuan. E... "Batallón Amuategi"-xan jeuazen e... honek e... gorrixak esaten zana, ezta; sozialista ta halakuak, ezta? Geure ezagunak, bueno, baiña gazte-gaztiak hil zittuan. Ta e... PNV-kuak e beste zerak... honek Itxarkundian be mordua hil zittuan... berrogetatik... berrogeittik gora behintzat hilgo zittuan plazentziatarrak e! Hil zittuan inguruan. Jende asko hiltzen zuan, asko.

- Kanpoan zebizela?

- Bai. Kanpuan? Gerran. Gerran hil. Ez, bonbardeuan ez bestela. Frentian. Frentian hil. Lorenzo Epelde ta "Seulete" panaderua ta... Jesus! Zelako mutilak! Zelako mutillak baiña! "Usetxe" ta... "Usetxe" zuan ziklistia idolua zuan plazentziatarrona gaztiona... zera zuan bizikletan e... hamen Andramarixetan eitten zan karreran beti lelena ateratzen juan. Zuan mutil bat, dibujantia, artetsua... "Usetxe"... haura be jo-ta txipristinduta geratu ei zuan. Bonbiak arbola baten kontran edo... jo-ta... obusak berak jo hi! Jo-ta zeatuta geratu ei zuan. Asko, asko, asko hil zuan orduan. Asko hil zuan. Ta haura giro haura, giro haura... hona etorreria ta despreziu harek eta... Gogorra izan zuan... ta gero, ba, bizimoduak ba...

- Bai, aurea ein bihar.

- Aurea ein biha dok eta...

16. Gerraren inguruko ikuspegia

- **Erref:** SOR-027/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

<p>Gerra Zibilaren inguruko kontuak. Gorrotorik ez, baina horrelakorik ez dadila berriz sortu.</p>

Transkripzioa

- Penagarrixa dok, e? Baiña oin hoixe, gorrotorikan iñondako be ez jaukau gorrotorikan, baiña berrito ez deilla sortu holako gerrarikan.

- Bai, pentsatzen dot...
- Ez, ez... ez deilla sortu. Anaien arteko... Gerra zibilla baiño gauza tristiaorikan ez daok ezebe, zegaittik eze gorrotorik haundixenak be orduantxe agertzen dittuk. [...] konprendidu.
- Orduan dana libre?
- Dana. Bai, ba. "El bando vencedor" edo "el grupo vencedor" ta... Baiña hori, hori, zerana zuan, Molana, lehen esan dostatena, e? Haura: "No quiero prisioneros", oseake harek... horren gerria diferentia zuan.

17. Gerraren gogortasuna

- **Erref:** SOR-027/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Errekete baten inguruko pasadizoa. Zaurituta zegoen eta gudari batzuek ospitalera eraman zuten. Gerraren gogortasuna.

Transkripzioa

- Urkiolan heridu juen, harrapau juen —aurrerakadak be eitten jittuen ta hurrengo zertu ta...— rekete bat heriduta, oso gaizki heriduta ei jeuan. Hartu juen kamillan ta bajatu juen beheraiñokan...
- Bizkarrian...
- ... gudarixak. Lau gudarik edo bi-hiruk edo bik, ez jakixat, bik be igual. Bajatu juen behera ta han be ez jeuan ondo organizauta zera edo, ta han be, behintzat, Zornotzaraiñok-edo Durangotikan han be eruan juen ta Bilboko Basurtoko ospitaleraiñok eruan juen heridu bat. Hamengo...
- Reketia izen arren...
- Gure aldetikan ez zuan egon hori "No quiero prisioneros"-ikan. In zuan gerria gizatasunakin in zuan. "Por un ideal", ez "por, por..."...
- Bai, bai.
- Holaxe, ba.

18. Gerraren inguruko ikuspegia

- **Erref:** SOR-027/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gerra baino gauza tristeagorik ez dago. Gaurkotasunarekin zerikusia duten gaiak.

Transkripzioa

- Ta oin entzuten dozunian hor... oin be dana telebisiñuan gerria, gerra-hotsa, besterik ez dabil ta ze... ze pentsatzen dau batek?

- Gerria baiño tristiaorik ez daok, gerria ebitau ein bihar jok, nik hori esaten juat.

- Hori baiño lehen edozer gauza...

- Gerria dok, gerria dok izan leiken gauzarikan tristiena dok. Nik ez jakixat... ezin jotset konprendidu oin batzuek darabixen... juan in bihar dala. Nik Bush be konsideratzen juat, neretako, Hitler-en ta moduan "un dictador" dok haura be neretako, "dictador". Ezin leikek bestela euki hori... hori goguori gerrarako! Nahi jok dominau, nahi jok harek daukan petroleua be bera jabetu. Horixe. Nik uste juat horixe dala dana, e? Dirua izaten dok gehixenetan, gaiñera, holako...

- Bai, horren...

- Ta horren alde darenak badakizu zeintzuk dian, gerrian alde, lehenguak. Ahal dala ebitau ein bihar dok gerria.

19. Gosea; errazionamendua

- **Erref:** SOR-027/025
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gosea. Amaren joan-etorriak jatekoaren bila. Errazionamendua.

Transkripzioa

- Ta zelako [txikixak] danak eta gogorrak pasau jittuen. Gero eza be egon zuan, e? Gero etorri zuan hona, han egon giñala gosia... egon zuan Bilbon be gose zera egon zuan, baiña gero hamengua txarraua izan zuan. Gero haura, haura... eza, eza, hauraxe zuan eza! Ez diru ta ez jan ta ez ezer! Tristia haura zuan!

- Ta zela zertu ziñien orduan?

- Orduan ez zuan... ahal zan moduan. Gure ama kuttua juaten zuan maletak hartuta Artica. Han amistadia eindra euan gure aitta kartzelan egon zanian Fuerte San Cristobal-en hari erropia moja bat, mojian bittartez-edo erropia garbitzen zotsala gure aittari ta bisittau eitten ebala ta abar. Ta juan haregana ta harek... kokoz betetako baba baltza edo, buruan be dana kokoz beteta etorri... Baba zaharrak, ezta? Ta maletan, ta haura be kendu be ein jotsen behin Guardia Zibillak eta...

- Haura be bai?

- Haura be kendu ta gero berriro juan Zumarragara ta Zumarragan mojak... Mojak be zera jeuken orduan, abadiak eta mojak eta, beren... beren pisua jeuken ta juan ta konsegidu in juan atzera rekuperatzia maletaori baba beltzakin ta. Gu estaziñora juan ta [kotxe] bidetik zihar bajatzen ta [ez...] ikusi ta... Baba beltza, baba beltza kokoz betetakua. Zeoze... Gose-denporia tristia izan zuan.

- Igual basarrixetatik eta, ezta? Pixkat...

- Bai, ba. Bai, bai, bai, basarrixetatikan. Basarrikuak ondo arreglau zittuan orduan, basarrikuak defendidu eitten zittuan etxian hartutako zerakin ta... Baiña hamen be konsegitzen genduan. Ba...

- Handik eta hemendik?

- Handik eta hemendik. Hortxe. Arabara-ta juan ta... Gure aittakin kartzelan egondako bat be bajeuan basuan ta... Xabier egon zuan han mutikua zala

tripa-truke moduan edo han tripia betetzen. Ogixa etxian eitten ebela ta orduan zuan aiba dio!

- Bai, hori kristona izango zan, ogi zurixa edo...

- Bai, ogixa etxi... Ene! Ogixa zuan, ba, zerori, gure "alimento principal" hori zuan.

- Ta rasionamentua edo hori noiz... zeuk ezautu zendun hemen?

- Ezautu genduan hemen. Bai, bai, bai. Rasionamentua? Joe, rasionamentua baita lizenziau ta gero be artian rasionamentua egon zuan hamen! Bai. Rasionamentua. Ta han be bai. Han be ehun gramo personako ta... arroza ta izaten zuan Bizkai... Gernikan-ta be.

- Egon ziñienian?

- Bonbardeuan, bonbardeuan aurretikan. Lehelenguetan, lehelengo bi edo hiru hillebete hemendik juañ gĩañian, jo, okelia ta dana jeuan, baiña gutxitzen, gutxitzen, gutxitzen juañ zuan ta gero ez ardaurik eta... Horretxek hartu jittuan asko gaizki hamendik juandakuak. Refugiau juañ bai, refugiau ta hil ein zittuan guk ezautzen genduzen persona nausixak ohittuta erenak beren lana in ta gero beren kuartilotxua edo beren baso haundixa edo eraten ohittuta eren personak haura falta. Ez zittuan akordatzen ez ogixakin ta ezekin be. Ardaua, ardaua, haura, haura... [...] eraten eben haura, haura falta. Danak hil zittuan. Horrek...

- Persona zaharrak eta?

- Zaharrak hil. Gaizki, gaizki agertu zittuan. Azkoitti zaharra ta [...], geuk ezautzen genduzenak. Gaizkixen haretxek hartu jittuan honek, ardau faltiak, persona nausixak. Bai, ba, ohittuta, gorputza ipinitta hauraxe, ezta? Ez dakizu?

- Bai, bai, bai.

- Kuartillua edo... hantxe ohittuta ta...

- Bai, hauraxe biziua.

- Hauraxe, bai, bizio baten moduan, zigarrua dan moduan, ba, horixe. Tabakua zuan beste bat. Tabakuan faltia ta egoten zanian ta... bueno, bueno, bueno zer, zer, zertzuk eitten jittuen, baiña, orduan? Ni ez nok izan sekula fumatzaille haundixa baiña... Bedarrak-eta hartu ta sekatzan euki ta bedarrakin ta usein batzuk eta...

- Harrapatzen zana erre?

- Erre, koño, erre! Ta tragau, gaiñera. Joe...! Hori be, hori be biziua dok, ba, hori be, tabakua. Ene...!

20. Eskolaurretik maristetaraino

- **Erref:** SOR-067/003
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:01:04. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Lautik sei urte arte eskolaurrean ibili zen Modesta zaintzaile soraluzetarrarekin. Urtebete eskola nazionaletan ikasi eta gero, maristen eskolara joan zen 14 urte bete zituen arte. Maristetan hasi zenean ikasi zituen lehen erdal berbak. Ikasle kopuruari aurre egin ezinda, 16 urtetik 14 urtera jaitsi zuten eskola bukatzeko adina maristek.</p>

21. Eguneroko otoitzak maristetan

- **Erref:** SOR-067/004
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Victor Andrés muxikarra eta Antonio Agustin burgostarra izan zituen irakasle maristak. Izen horrek erlijio-izenak omen ziren, ez benetako izenak. Eskolan gaztelaniaz egiten zuten arren, eskolatik kanpo muxikar maisua euskaraz mintzatzen zen eurekin. Goizean, Ave María eta bazkalostean arrosario osoa errezatzen zuten eskola hasi aurretik.

22. Eskolako jolas-orduak

- **Erref:** SOR-067/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:07:18. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskolako patio txikian jolasten zuten pilotan eta futboleak. Jolas-ordua bukatzen zenean, denak formatuta itzultzen ziren eskolara. "Juegan" ere jolasten zuten.

23. Gozo eta kandelagile

- **Erref:** SOR-067/006
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

1934. urtean krisi gogorra omen zegoen, eta eskolak bukatu eta Zumarragako senide batengana joan zen, gozogintzan ikastera. Txokolate, pastel eta baita kandelak ere egiten zituzten bertan. Argizaioletan biltzen zuten kandela, elizan jartzeko. Gerra hasi aurretik izan zen etxera Zumarragatik.

24. Aita espetxeratu zuten gerra hasieran

- **Erref:** SOR-067/007
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Udalerako errolda jasotzen jardun zuen etxerik etxe beste hiru lagunekin. Gerra hasi zenean ama haurdun zegoen; eta aita, garaian EAJko zinegotzia, etxean geratu zen. Tropak Soraluzen sartu zirenean, irailaren 22an, aita atxilotu zuten. Lau urte eman zituen espetxean; Soraluze, Tolosa, Donostia, Iruñea, Isla de San Sim&ocute;n eta Upomendi itsasontziko kartzelak ezagutu zituen.</p>

25. Trubian egin zuen soldadutza

- **Erref:** SOR-067/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

<p>Iruñeko Fuerte de San Cristobal espetxetik ihesaldian ez zuen parte hartu, adinagatik. Upomendi itsasontzitik Zamorako Astorgako kartzelara eraman zuten. Nikanor Asturiasen soldadu zegoen, eta aita bisitatzera joan zen Astorgara. Asturiasko Trubiako arma-lantegian egin zuen lan Nikanorrek, tornularia zela esan zuelako. Honela, frontera joatetik libratu zen.</p>

26. Aitari bisita Astorgako kartzelan

- **Erref:** SOR-067/009
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Aitari Astorgako kartzelan egin zion bisita kontatzen du. Erdaraz berba egin behar, eta ezin zuen asmatu aitari erdaraz hitz egiten. Elkar besarkatzeko aukera izan zuten. 41 urte zituen aitak. La Quinta del Biber&ocute;nekoekin batera joan zen Nikanor soldadutzara, 18 urte bete berri zituela. Kinta horretako baserritarrek bereziki sufritu omen zuten.</p>

27. Asturiastik Burgosera entxufez

- **Erref:** SOR-067/010
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:22:16. **Bukatu:** 00:25:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Trubiako lantegian soldata ordaintzen zieten soldaduei. Noizbehinka aitari dirua bidaltzen zion Astorgara. 13 pezeta eta erdi irabazten zituen egunean. Gerra bukatu zenean, kuartelera bidali zuten. Han bulegari lanetan jardun zuen. Handik Burgosko militarren osasuneko anbulantzia-sailera joan zen. Guardia gutxi eginda pasatu zuen soldadutza.</p>

28. Hiru hilabeteko baimenak

- **Erref:** SOR-067/011
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:25:57. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzako zatirik arinena Asturiaskoa iruditu zitzaion, dirua irabazten zuelako. Zortzi anai-arreba ziren, bera bigarrena. Sei urtez egon zen soldadutzan. Bizpahiru aldiz, hiru hilabeteko baimenarekin etorri zen etxera.

29. Kanoigintzaren artisautza

- **Erref:** SOR-067/012
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli zenean, etxeko eskopeta-kanoi tailerrean hasi zen lanean. "Agirregomezcorta y Cía." lehenengo eta "Industrias Iñurrieta" gero izan ziren tailerraren izenak. Anaia biak kanoigintzaren prozesua azaltzen dute. Eskulan asko hartzen zuen kanoigintzak.

30. Eskopeta-kanoigintza

- **Erref:** SOR-067/013
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:34:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Eurak kanoi solteak lantzen zituzten, eta halaxe saldu. Gero Eibarren, lotzaileak, kanoiok binan soldatzen zituzten. Tailer bakoitzak bere espezialitateko pieza lantzen zuen, gero beste batzuk eskopetaren muntaia egin zezaten. Garai batean egon ziren Soraluzen beste eskopeta-kanoigile batzuk, (Arana edo errotako Galarraga, besteak beste), baina azkenerako Iñurrietarrak bakarrik geratu ziren.

31. Eskopetagile eta saltzaileak

- **Erref:** SOR-067/014
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:34:31. **Bukatu:** 00:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Eskopetaren baskula zer den azaltzen du Julenek. Arizaga alde batetik, eta Migel Larrañaga bestetik ziren eskopeta osoa egin eta saltzen zuten tailerrak Soraluzen. Zortzi bat lagunek egiten zuten lan Iñurrietarren tailerrean. Sozioak alde egin eta 1944ean Iñurrietarrak bakarrik geratu ziren tailerrean. Ezkondu eta gero Nikanorrek torlojugintza tailerra izan zuen.

32. Emaztearen familiarekin lanean

- **Erref:** SOR-067/015
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:38:08. **Bukatu:** 00:41:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Lana errazteko Alemaniatik ekarri zituzten makinak. Nikanor ezkondu zenean, aitagarrebarren lantegian hasi zen lanean. Koinatua eta biak torlojugintzan hasi ziren elkarrekin. Koinatuak Zamudion jarri zuen tailer bat, eta Nikanor geratu zen Soraluzekoarekin.

33. Leturiondotarren tailerra erosi zuen

- **Erref:** SOR-067/016
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:41:35. **Bukatu:** 00:44:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea

Laburpena:

Alemaniarra joan eta bi estanpatzaile makina erosi zituen. Ekoizten zuen guztia

saltzen zuen, eta oso ondo joan zitzaion Nikanorri. Juanita Leturiondo zen Nikanorren emaztea, eta Juan Leturiondo haren familiako tailerraren izena. Tailerra erosi eta bere izena jarri zion Nikanorrek. 1983. urtean jubilatuz zenean, tailerra itxi zuen.

34. Japoniarren kompetentzia

- **Erref:** SOR-067/017
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:44:24. **Bukatu:** 00:46:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

Japoniarrak torloju hobea eta merkeagoa itsasontzietan ekartzen hasi zirenean, hemengo torlojugintzak beherakada nabarmena jasan zuen. Hori izan zen tailerra ixtearen arrazoi nagusia. Berearekin batera Sacia, Argarate, Arizaga eta beste torlojugintza tailer batzuk ere itxi egin behar izan zuten. Denak porrot egin omen zuten.

35. Aitaren kartzela-pelegrinazioaren bukaera

- **Erref:** SOR-067/018
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:46:49. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita Astorgako kartzelatik Gasteizkora ekarri, eta handik Bilboko eskolapioetan zegoenera eraman zuten. Hemendik Babcock & Wilcox lantegira behartuta joaten zen lanera. Gero Larrinagako kartzelan egon zen eta handik bidali zuten etxera.</p>

36. Errepublikan Nikanor dantzari

- **Erref:** SOR-067/019
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:51:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Errepublika etorri zenean, Nikanor haur dantzari talde bateko kide zen. Aurrekua dantzatzen ikasi zuen, eta Oñatira ere joan zen, garai hartan batere arrunta ez zen haur-aurrekua dantzatzera. Oñatin jendeak dirua bota zieten, zilarrezko pezetak barne; 1931. urtean izan zen hori.

37. Bergarako Euskal Jaietan dantzari

- **Erref:** SOR-067/020
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:51:17. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Errepublikara garaietan, Bergaran ospatu zen Euskal Jai garrantzitsu batean, San Martingo plazan oholta gainean egin zuten dantza. Bilbotar ospetsu batek eskatuta haur-aurreskua errepikatu zuten. Dantzan, oholtzatik txapela bota zion Nikanorrek publikoari, eta bere amaren eskuetan geratu zen txapel hori. 14 urtera arte jardun zuen dantzari.

38. Igandeetan inguruko herrietara

- **Erref:** SOR-067/021
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Errepublikak beste alaitasun eta elkartasun bat ekarri omen zuen Soralezera. Erromerietara batez ere Eibarrera joaten ziren. Bergarara eta Elgoibarrera ere joaten ziren. Eibar erraustua geratu zen gerran, eta harik eta Ipuruako futbol-zelaia eraiki zuten arte, jendea ez zen bertan geratzen. Tartean, igandeetan Elgoibarren eibartar eta soralezetar gehiago elkartzen ziren elgoibartarrak baino, trenez joanda.

39. Herrialdeko trenak

- **Erref:** SOR-067/022
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:58:18. **Bukatu:** 01:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Soraluzetarrak elgoibartarrei esaten omen zieten eurek Elgoibarrera joaten zirela, Eibarko neskak hara joaten zirelako. Zumarragan egon zenean trenez egiten zituen joan-etorriak, Antzuolatik bueltan. Mekolaldetik, Zumarragara "Ferrocarril Vascongado"rekin, edo Lizarraraino "Ferrocarril Vasco Navarro"rekin joateko trenbideak zeuden.

40. Soraluzetik Zumarragara trenez

- **Erref:** SOR-067/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:00:42. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Ordubeteko bidaia zen Soroluzetik Zumarragara. Lau geltokietan geratzen zen iritsi aurretik. Antzuolako erripan langileak area botatzen zuten errailetan trenak labaindu ez zezan.

41. Eskopeta-kanoiak egiten

- **Erref:** SOR-068/001
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Makina automatikoak ekarri zituen arte, eskopeta-kanoiak zein artisau eran egiten ziren azaltzen du. Banan-banan eta eskuz zulatzen ziren, alde batetik lehenengo eta bestetik gero; erdiko koska nola konpontzen zuten, zuzentzailearen lana zein zen... Soroluzeko Astiazaranek asmatu zuen alde batetik besteraino zulatzeko makina, baina ez zen oso ona; gero makina alemana ekarri zuten, eta hark hobeto egiten zuen lana. Fresatzeko makina kopiatzailearen lanak azaltzen ditu.

42. Eskopeta osoa egiten

- **Erref:** SOR-068/002
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Kanoi solteak hartu, eta lotzaileak labean soldatzen zituzten binaka. Kaxaginak kulatak egiten zituzten. Kanoia eta kulata lotzeko pieza, baskula, beste batek egingo zuen. Tailer bakoitza bere piezan espezializatuta zegoen, gero armaginak elkartuko zituenak. Baina baziren lantegi batzuk eskopetaren pieza guztiak egiten zituztenak, gero elkartu eta eskopeta bukatua ateratzen zutenak. Pistoi, gatillo, etab. armaginarekin kontua izaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-10-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com